

GEBren dokumentazio zentroko 2021eko azaroko artikulu nabarmenak



GONZÁLEZ PÉREZ, S., 2021. [Impacto de las 'role models' sobre la influencia de los factores determinantes en la elección de carrera de las niñas en el ámbito STEM.](#) Universidad CEU San Pablo

Doktorego-tesi honen hasieran, Espainian genero-berdintasunean egin diren diren aurrerapenak jorratzen dira, bai eta oraindik dauden hobekuntza-eremu zabalak ere, bereziki emakumeek lidergo-postuetan duten presentzia eskasari eta lanbide zientifiko eta teknologikoetan duten kezkatzeko moduko ordezkariak urriari

dagokienez.

Lan honek planteatzen du, maila teoriko batean, neskato batek STEM karrera bat aukeratzea, edo ez, azal daitekeela jarraian aipatzen diren matematikarekin lotutako faktore sozialen eta motibazionalen arteko erlazioen bidez. Arrakasta-itxaropenak pertsonen beren adimen-trebetasunetan duten konfiantzaren arabera dira, bai eta kontuan hartzen ari diren aukeren zailtasunaren eta arrakastarako kanpoko edo gizarteko oztopoen estimazioaren arabera ere. Interesa edo berezko balioa da pertsonak lortzen duen gozamina lana egitean; garrantziak, berriz, ondo egin izanaren lorpen-balioa eta etorkizuneko helburuetarako erabilgarria izatea dakartza. Trebetasun matematikoari buruzko genero-estereotipoek galarazten diete neskatoei STEM diziplina batzuk aukeratzea; izan ere, horrelako karreretan arrakasta izatea distira intelektual handiarekin lotzen da eskuarki, eta distiraren estereotipoa lotuta dago maskulinitasunarekin.



HERNÁNDEZ VEITIA, A.B. y GENTILE, A., 2021. [Políticas públicas para la empleabilidad de los NEETs: revisión de los programas implementados en la Unión Europea en el período 2014-2020.](#) Documentos de trabajo (CSIC. Unidad de Políticas Comparadas), 4. zk, 1. or

Gazteria lehentasuna da Europar Batasunean gizarte-kohesioa indartzera eta belaunaldien arteko justizia defendatzera bideratutako politika publikoetarako. Hala ere, azken hogeitau urteetan, lehentasun hori ez da beti gauzatu neurri eraginkorretan, gazte guztien gizarteratzea eta laneratzea bermatzeko; aitzitik, aurreko mendeko laurogeiko hamarkadaren bigarren erdiaren eta laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieraren artean jaiotako gizarte-egoeraren bi ezaugarri bereizgarri dira langabezia eta prekarietatea. Lan-merkatuan gazteak marjinalak izateko joera indartu egin da 2008. eta 2014. urteen arteko krisi ekonomikoarekin, eskolatik lanerako trantsizioan zailtasun handiagoak dituztelako eta enplegu egonkorrak lortzeko aukera gutxi dituztelako.

Txosten hau ERASMUS+ YoPeVa proiektuari atxikitzen zaio, eta bere helburua da hurrengo urteetan "atzeraldi handiaren" (2014-2020) joera negatibo hori iraultzen saiatu diren politiketan jardunbide egoki batzuk (nazionalak eta azpi-nazionalak) ezagutaraztea Europako gazteen erabateko integrazioa lortzeko, bereziki gizarte-kalteberatasunean dauden kolektiboetako pertsonak. Adibidez, kasu horretan daude ikasten ez duten, lan egiten ez duten eta prestakuntzarik jasotzen ez duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteak, NEET izenekoak, ingelesezko siglen arabera (Young people Not in Education, Employment or Training).

Lehenik eta behin, politika horiek txertatzen diren esparrua zehazten dugu: "Gazte Bermean" zentratzen gara, Europar Batasunean NEET fenomenoak konpontzeko edo, gutxienez, murrizteko eta prebenitzeko programa eta ekintza multzo gisa. Bigarrenik, identifikatu ditugu zenbait estatu kidek ezarritako enplegu-politika aktiboen eta gazte-politiken arrakasta- eta porrot-faktore batzuk, lortu nahi ziren helburuak, horiek abian jartzeko erabilitako tresnak eta inplikaturako eragile sozial eta instituzionalen zeregina adieraziz. Azkenik, gomendioak eta galderak planteatu ditugu, etorkizuneko ekintza politikorako baliagarriak izan daitezkeenak interesatzen zaigun arlo berean: Europako gazteak eta, bereziki, bazterkeria-arriskuan dauden gazteak gizarteratzea eta laneratzea.



RIVAS HERRERO, B. y IGARTUA PEROSANZ, J.J., 2021. [Los jóvenes se sumergen en Instagram. Un estudio desde la perspectiva de los usos y gratificaciones.](#) El profesional de la información, 30. libk., 5. zk., 12. or. ISSN 1699-2407

Ikerketa honek erabileren eta sarien teoriaren ikuspegitik aztertzen du Instagramen erabilera. Azterketaren helburua da ezagutzea Instagram erabiltzeko arrazoiak nahiz Instagramen intrusioa ahalbidetzeko norbanakoen jarrerak hartzen duen garrantzia (Instagram sare sozial horretan gehiegizko parte-hartze eta atxikimendu gisa ulertuta). Horretarako, online inkesta bat egin zen, eta Espainian bizi eta Instagramen profila zuten 18 eta 36 urte bitarteko 401 pertsonak parte hartu zuten (% 73,1 emakumeak). Diseinatutako galdesortak hainbat eskala zituen Instagram erabiltzeko arrazoiak, intrusio maila eta banakoaren beste ezaugarri batzuen araberrako desberdintasunak neurtzeko (autoestimua, konparazio soziala eta inbidia). Eraitzen arabera, Instagram erabiltzeko arrazoi nagusiak ziren interakzio soziala, sormena eta dokumentatzea, eta gutxien irudikatzen ziren arrazoiak ihesa eta autosustapena ziren. Hala ere, erregresio lineal anizkoitzaren analisi baten bidez, Instagramen intrusio handiagoa iragartzen zuten arrazoiak autopromozioaren eta ihesaren bilaketa zirela ikusi zen. Azkenik, konparazio sozialerako orientazioa eta autoestimua intrusio handiagorekin lotzen zirela ikusi zen. Gure ikerketak sare sozialen azterketari buruzko bibliografiari ekarpena egin dio, bereziki, Instagramen erabilera problematikoagoa azaltzen duten faktore iragarleei dagokienez, aldagai motibazionalak eta desberdintasun indibidualak kontuan hartuta. Horrela, Instagramen erabilerearen azpian dauden prozesuei buruzko ezagutza argitzen da, eta sare sozialen erabilerei eta horien sariari buruzko ikerketan intrusioaren kontzeptua sartzen da.